Urriak 18, larunbata, 19:15ean / Sábado 18 de octubre, 19:15



## SEMILLAS DE KIVU

Néstor López, Carlos Valle / Dokumentala
República Democrática del Congo / 2024 / 29 min
V.O. Francés / SUBT. Castellano

distribucion@ecam.es

Kivun (Kongoko Errepublika Demokratikoa), munduko lekurik bortitzenetakoan, talde-bortxaketa pairatu duten emakume batzuk Panziko ospitalera iritsiko dira —meatzaritza-baliabideak menderatzen dituzten inguruko gerrillariek bortxatu dituzte—. Birgizarteratu aurretik jasoko duten tratamendu psikologikoak dilema baten aurrean jarriko ditu: bortxaketen ondoren erditu dituzten haurrak onartzea eta amatasuna erresistentzia-modutzat hartzea, ala ez.

En Kivu (RD Congo), una de las zonas más violentas del mundo, un grupo de mujeres llega hasta el Hospital de Panzi después de haber sido violadas en grupo por las guerrillas de la zona que dominan los recursos minerales. Su tratamiento psicológico antes de la reinserción las enfrenta al dilema de aceptar a los bebés que han dado a luz tras las violaciones, encontrando en la maternidad, una manera de resistir.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19, igandea, 17:00ean / Domingo 19 de octubre, 17:00



## SIMA´S SONG

Roya Sadat / Fikzioa
Afganistán, Grecia, España / 2024 / 97 min
V.O. Farsi / SUBT. Castellano

development@albasotorra.com

Kabulen, iraganaren eta orainaren artean bereizita dagoen hiri batean, gerren, ideologien eta traizioen gainetik dagoen adiskidetasun-harremana eraikiko dute bi emakumek. Suraya militante komunista da; Sima, berriz, abeslari tradizionala; hau da, elkarren aurka dauden askatasunaren bi ikuspegi adierazten dituzte. Hamarkadetako borroken, jazarpenen eta erbestealdien poderioz, haien arteko harremana Afganistango emakumeen memoria kolektiboa josiko duen hari ikusezina bihurtuko da.

En un Kabul dividido entre pasado y presente, dos mujeres forjan una amistad a prueba de guerras, ideologías y traiciones. Suraya, militante comunista, y Sima, cantante tradicional, representan dos visiones enfrentadas de la libertad. A través de décadas de lucha, persecución y exilio, su vínculo se convierte en el hilo invisible que conecta la memoria colectiva de las mujeres afganas.

**Colegio Mayor Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia. EHU**
Urriak 14, asteartea, 19:15ean / Martes 14 de octubre, 19:15

**Auditorio Museo Guggenheim Bilbao**
Urriak 19, igandea, 18:00etan / Domingo 19 de octubre, 18:00

**Teatro Barakaldo**
Urriak 22, asteazkena, 19:00etan / Miércoles 22 de octubre, 19:00

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 22, asteazkena, 20:00etan / Miércoles 22 de octubre, 20:00



## YO VOY CONMIGO

Chelo Loureiro / Animazioa
España, Galicia / 2024 / 7 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

info@selectedfilms.com

Elisak Martin atsegin du; baina, antza denez, Martin ez da konturatzen. Martin erakartzeko Elisari ematen dizkioten aholkuek itxura ez ezik nortasuna ere aldatzea proposatzen diote. Prest egongo ote da bere izaerari uko egiteko? Mereziko ote du?

A Elisa le gusta Martín, pero parece que Martín no se da cuenta. Todos los consejos que Elisa recibe para que Martín se fije en ella pasan por cambiar no solo su aspecto, sino quién es en realidad. ¿Estará dispuesta a renunciar a ser ella misma para conseguirlo? ¿Merecerá la pena?

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 13, astelehena, 20:00etan / Lunes 13 de octubre, 20:00

**Errota Kultur Etxea. Matiena / Abadiño**
Urriak 17, ostirala, 19:00etan / Viernes 17 de octubre, 19:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 19, igandea, 19:30ean / Domingo 19 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 21, asteartea, 21:30ean / Martes 21 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

## LEHIAKETARAKO FILMAK: KULTURARTEKOTASUNA
## PELÍCULAS A CONCURSO: INTERCULTURALIDAD



### ALDARRIAK

Cecilia Muñoz Reyes, Juan Esteban Montoya / Dokumentala
Euskal Herria / 2025 / 65 min
V.O. Castellano, euskera / SUBT. Castellano parcial, euskera parcial

aldarriak@gmail.com

Bizkaiko kostaldeko txoko batean, emakume migratzaile eta genero disidente diren pertsonek ahotsa altxatzen dute, babesleku eta ospakizunerako toki bihurtzen den tailer batean. Beraien kontakizun pertsonalen bidez, zortzi ahotsek esperientzia migratzailearen muniera garamatzate. Eremu seguru batean, ahotsaren bidez, mina, amorrua, beldurra, tristura, poza eta gozamena zeharkatzen dituzte. Hitz bakoitza erresistentzia-egintza bihurtzen da, indarrez, determinazioz eta itxaropenez betea.

En un rincón de la costa de Bizkaia, mujeres migrantes y personas disidentes de género alzan la voz en un taller que se convierte en un refugio y un espacio de celebración. A través de sus relatos personales, ocho voces nos conducen por las múltiples dimensiones de la experiencia migratoria. En un espacio seguro, a través de la voz, atraviesan el dolor, la rabia, el miedo, la tristeza, la alegría y el placer. Cada palabra se convierte en un acto de resistencia, lleno de fuerza, determinación y esperanza.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22, asteazkena, 19:15ean / Miércoles 22 de octubre, 19:15



## ANA KANN ALLES

Loida García / Fikzioa
Alemania / 2024 / 19 min
V.O. Inglés / SUBT. Castellano

festhome@agenciafreak.com

Ana Canales gazte kristauak hilabete batzuk daramatza Refugio Café GKEan lanean. Erakunde kristau horrek errefuxiatuei laguntzen die Berlinen. Bertan Bibi ezagutuko du, kafetegian lanean diharduen neska gazte irandarra, epe laburrean herrialdetik deportatuko dutena. Urtebetetze-festa batean hitz egingo dute lehen aldiz, eta elkarrekiko erakarpen--sentimenduaz konturatuko da Ana. Ez da gai sentimendu hori onartzeko; baina, aldi berean, kezkatuta dago Bibiren egoeragatik. Anak Bibiri lagundu nahi dio, horretarako bere emozioak sinesmenen gainetik jarri behar baditu ere.

Ana Canales es una joven cristiana que trabaja desde hace unos meses en el Refugio Café, una ONG cristiana que ayuda a los refugiados en Berlín. Allí conoce a Bibi, una joven iraní que trabaja en el café y que pronto será deportada del país. En una fiesta de cumpleaños las dos hablan por primera vez, y Ana descubre una atracción recíproca hacia Bibi. Incapaz de afrontar lo que siente y al mismo tiempo preocupada por la situación de Bibi, Ana se propone ayudarla, aunque para ello tenga que confrontar sus emociones con su fe.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19, igandea, 21:30ean / Domingo 19 de octubre, 21:30



## BONNARIEN

Adiel Goliot / Fikzioa
Guayana Francesa, Francia / 2023 / 21 min
V.O. Criollo Guayanés, francés / SUBT. Castellano

adielgoliot@gmail.com

Mauricette Bonnarienek (27 urte) zamaketari-lanak egiten ditu Dégrad des Cannes portuan, Guyana Frantsesean. Gainontzean, slamean dihardu. Konplexu handia sorrarazten dio bere abizenak, arbaso bati ezarri baitzioten esklabotzaren abolizioaren ondoren. Horregatik, izena aldatzeko borrokatuko da. Bada garaia ingurukoek bere abizen berria ezagutu dezaten.

Mauricette Bonnarien (27 años) trabaja como estibadora en el puerto de Dégrad des Cannes, en Guayana Francesa. El resto del tiempo se dedica al slam de poesía. Muy acomplejada por su apellido, impuesto a su antepasado tras la abolición de la esclavitud, lucha por llevar a cabo un procedimiento de cambio de nombre. Es hora de que su entorno conozca su nuevo apellido.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19, igandea, 19:15ean / Domingo 19 de octubre, 19:15



## EZ DAUKATE

Itxaso Jurado Fradua / Dokumentala
Euskal Herria / 2025 / 5 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

itxasojurado@gmail.com

Yusek, 29 urteko gazteak, saiakera ugari egin zituen bere herrialdetik ihes egiteko, kamioien azpian ezkutatuta. Mikro dokumental honetan, jasan zuen errepresioa eta poliziaren aldetik jasotako jipoiak kontatzen ditu.

Yusek, un joven de 29 años intentó en varias ocasiones huir de su país escondiéndose bajo camiones. En este micro documental, relata la represión que sufrió y las palizas por parte de la policía.

**Errota Kultur Etxea. Matiena / Abadiño**
Urriak 10, ostirala, 19:00etan / Viernes 10 de octubre, 19:00

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 11, larunbata, 20:00etan / Sábado 11 de octubre, 20:00

**Cineforum de Aulas de la Experiencia EHU. Bizkaia Aretoa-EHU - Sala Baroja**
Urriak 13, astelehena, 17:30ean / Lunes 13 de octubre, 17:30

**Zine Antzokia. Zalla**
Urriak 16, osteguna, 19:00etan / Jueves 16 de octubre, 19:00

**Colegio Mayor Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia. EHU**
Urriak 16, osteguna, 19:15ean / Jueves 16 de octubre, 19:15

**Azkuna Zentroa Alhóndiga. Bilbao**
Urriak 16, osteguna, 19:30ean / Jueves 16 de octubre, 19:30

**Universidad de Deusto, Deustuko Unibertsitatea. Bilbao. Sala Ellacuria Aretoa**
Urriak 17, ostirala, 10:00etan / Viernes 17 de octubre, 10:00

**Torresoroa Aretoa. Antzuola**
Urriak 17, ostirala, 18:30ean / Viernes 17 de octubre, 18:30

**Muxikebarri - Getxoko Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroa**
**Muxikebarri - Centro de Arte, Cultura y Congresos de Getxo**
Urriak 17, ostirala, 19:00etan / Viernes 17 de octubre, 19:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 17, ostirala, 19:30ean / Viernes 17 de octubre, 19:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 20, astelehena, 20:00etan / Lunes 20 de octubre, 20:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 21, asteartea, 21:30ean / Martes 21 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**EHU. Leioa. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Auditorioa**
**Auditorio de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**
Unibertsitatearekin harremanetan jarri / Consultar con la universidad



## GRIETAS ATRAVIESAN ESTE VIDRIO MULTICOLOR

Francisca Ponce González / Fikzioa
Chile / 2025 / 19 min
V.O. Inglés / SUBT. Castellano

submissions@filmsontheroad.com

Valentina (23 urte) Pariseko ostatu batean bizi da, partekatutako gela batean. Nadia (50 urte) gelakide berriak zakarki esan dio ez diezaiola begiratu bere burua garbitzen duen bitartean. Soinu arraroak entzuten dituela eta, Valentina jakin-minez dago, eta orbana ikusi du haren bularrean. Begirada lotsagabe horren ondorioz, elkarrizketa tirabiratsuari ekingo diote. Kulturak, erlijioak eta hizkuntzak bereizten dituenez, etsaitasuna eta aurreiritziak nagusituko dira solasaldian.

Valentina (23) comparte habitación en un hostal en París. Su nueva compañera, Nadia (50), le exige bruscamente que no la mire mientras se asea. Intrigada por extraños sonidos, Valentina la observa y descubre una cicatriz en su seno. Su impertinencia desata una tensa conversación marcada por la hostilidad y los prejuicios, que las separan cultural, religiosa e idiomáticamente.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22, asteazkena, 21:30ean / Miércoles 22 de octubre, 21:30




## HOGEITABAT

Elene Mengyu Larrinaga Bilbao / Dokumentala
Euskal Herria, China / 2025 / 13 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

elenelarrinaga.elb@gmail.com

Guraso zuri batzuk hamaika hilabeteko neskato bat adoptatu zuten Txinan. Hogeita bat urte geroago, jada heldua den neskato horrek kontatzen du nola bere begiak gorrotoaren lekuko bihurtu diren, arrazista ez dela dioen herrialde batean.

Unos padres blancos adoptaron a una niña de once meses en China. Veintiún años después, esa niña ya adulta cuenta cómo sus ojos se han convertido en testigos del odio, en un país que afirma no ser racista.

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 12, igandea, 20:00etan / Domingo 12 de octubre, 20:00

**Colegio Mayor Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia. EHU**
Urriak 16, asteartea, 19:15ean / Jueves 16 de octubre, 19:15

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 18, larunbata, 19:30ean / Sábado 18 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22, asteazkena, 21:30ean / Miércoles 22 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## IMADE

Ignacio Acconcia González / Dokumentala
España / 2024 / 28 min
V.O. Catalán / SUBT. Castellano

info@selectedfilms.com

Etorkin gazte bat pozarren dago, Marokora itzuli eta aspaldi ikusi ez duen familia bisitatzeko. Horretarako, gorreriaren eraginez bizi dituen isolamenduaren eta bakardadearen aurka borrokatu beharko du.

Un joven migrante espera con ilusión volver a Marruecos para visitar a su familia, a la que no ve desde hace años. Para ello, tendrá que luchar contra el aislamiento y soledad en la que vive debido a su sordera.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19, igandea, 21:30ean / Domingo 19 de octubre, 21:30



## LOC SUB SOARE – PLACE UNDER THE SUN

Vlad Bolgarin / Fikzioa
Moldavia / 2024 / 20 min
V.O. Rumano / SUBT. Castellano

vlad.dalv@yahoo.com

Piano-jotzaile talentudun bat eta haren 8 urteko semea barazkiak saltzeko leku baten bila dabiltza, buru-belarri, Moldaviako azokarik handienean, 2000. urtearen inguruan. Bizimodu eskasaren pisu handiaren ondorioz aita amore ematekotan denean, semearen keinu batek itxaropena itzuli dio.

Un talentoso pianista y su hijo de 8 años luchan por encontrar un lugar donde vender verduras en el mercado más grande de Moldavia en los años 2000. Cuando el padre parece rendirse bajo el peso de su precaria existencia, un gesto de su hijo le devuelve la esperanza.

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 12, igandea, 20:00etan / Domingo 12 de octubre, 20:00

**Colegio Mayor Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia. EHU**
Urriak 16, osteguna, 19:15ean / Jueves 16 de octubre, 19:15

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 18, larunbata, 19:30ean / Sábado 18 de octubre, 19:30



## LOS CAYUCOS DE KAYAR

Álvaro Hernández Blanco / Dokumentala
Estados Unidos, España / 2024 / 29 min
V.O. Castellano, Wolof / SUBT. Castellano parcial, inglés

info@selectedfilms.com

Espainian 15 urtez etorkin bizi ondoren, Thimbo Senegalgo bere arrantzale-herrira joan da bisitan. Sentimendu kontrajarriak piztu zaizkio bertan: nostalgia eta deserrotzea, herrimina eta amorrua. Gainera, herriko gazteengan duen eragina arriskutsua dela konturatzen da; izan ere, eredutzat dute, eta arriskuz betetako bidaiari ekin nahi diote, pateraz.

Tras 15 años en España como inmigrante, Thimbo visita su pueblo pesquero senegalés, donde le embargan sensaciones encontradas de nostalgia y desarraigo, añoranza y despecho. Además, lidia con la peligrosa influencia que ejerce sobre la juventud del pueblo, que lo ven como un ejemplo a seguir y buscan emularlo con un peligrosísimo viaje en patera.

**Errota Kultur Etxea. Matiena / Abadiño**
Urriak 10, ostirala, 19:00etan / Viernes 10 de octubre, 19:00

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 11, larunbata, 20:00etan / Sábdo 11 de octubre, 20:00

**Colegio Mayor Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia. EHU**
Urriak 13, astelehena, 19:15ean / Lunes 13 de octubre, 19:15

**Zine Antzokia. Zalla**
Urriak 16, osteguna, 19:00etan / Jueves 16 de octubre, 19:00

**Universidad de Deusto, Deustuko Unibertsitatea. Bilbao. Sala Ellacuria Aretoa**
Urriak 17, ostirala, 10:00etan / Viernes 17 de octubre, 10:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 17, ostirala, 19:30ean / Viernes 17 de octubre, 19:30

**EHU. Leioa. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Auditorioa**
**Auditorio de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**
Unibertsitatearekin harremanetan jarri / Consultar con la universidad




## MAR DE FÓRA

Miriam Rodríguez, Ángel Cea, Erika Martínez / Dokumentala
España / 2024/ 16 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

mardefora24@gmail.com

Gero eta emakume gehiagok erabakitzen du jatorrizko herrialdea uztea, indarkeriatik eta eskubideen urraketetatik ihesi, Kanarietako ibilbidea —munduko hilgarrienetakoa— erabiliz. Migrazio-prozesu horretan, emakume izate hutsagatik, indarkeria-mota gehiago jasateko arriskua dute. Diskriminazio bikoitza ez da bukatzen Europara iristen direnean, bertan ere aurreiritziei eta bestelako egiturazko indarkeriei aurre egin behar baitiete, eta horrek areagotu egiten du emakumeon egoera zaurgarria. *Mar de fóra* filmak errealitate hori erakutsi nahi du, protagonisten eta Kanarietako gizartean haiei harrera egiteko prozesuan parte hartzen duten pertsonen ahotsen bidez.

Cada vez son más las mujeres que deciden abandonar sus países de origen huyendo de la violencia y las vulneraciones de derechos y se embarcan en la ruta canaria, una de las más mortíferas del mundo. En su proceso migratorio, ellas están expuestas a un mayor número de violencias solo por su condición de mujer. Una doble discriminación que no cesa cuando llegan a suelo europeo, donde también deben hacer frente a prejuicios y otro tipo de violencias estructurales que agudizan su situación de vulnerabilidad. 'Mar de fóra' trata de dibujar esta realidad a través de voces protagonistas y personas involucradas en su proceso de acogida en la sociedad canaria.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19, igandea, 17:00etan / Domingo 19 de octubre, 17:00



## MARIEM

Javier Corcuera / Dokumentala
España / 2024 / 15 min
V.O. Árabe hasaní / SUBT. Castellano

miguel@intermediaproducciones.com

Mariem Hassan Saharako herri-musikako abeslaririk garrantzitsuena izan zen, eta herrialdearen ikurtzat zuten erbestean. Gaixotasun sendaezina zuela eta, basamortura erretiratu zen, sahararrek askatu zuten gune batera, haurtzaroa igaro zuen ingurunera. Orduan sortu zuen «Agurra» kanta, eta bere azken lekukotza filmatzera joan gintezen eskatu zigun.

Mariem Hassan fue la más importante cantante de música popular saharaui, considerada un símbolo de ese país en el exilio. Víctima de una enfermedad irreversible, se retiró al desierto, a una zona liberada por los saharauis donde pasó su infancia. Fue entonces que compuso la canción "La Despedida" y nos pidió que fuéramos a rodar su último testimonio.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 18, larunbata, 21:30ean / Sábado 18 de octubre, 21:30



## NAHARINA

Ferran Domènech / Dokumentala
Siria, España / 2025 / 52 min
V.O. Kurdo / SUBT. Castellano

recreo.maria@gmail.com

Naharina herriko kideak duela milaka urte Mesopotamian bizi izan ziren herrien ondorengoak dira. Komunitatea dute oinarri, eta askotariko talde etnikoen arteko bizikidetza indargune. Baina dagoeneko ez dago ibairik —Turkiak lehortu du—, eta bertan bizitzea ezinezkoa da milioika pertsonarentzat. Hala ere, herritar kurduek, arabiarrek eta beste etnia batzuetakoek lanean jarraitzen dute komunak, emakumeen etxeak, kooperatibak eta bestelako segurtasun-eredu bat eraikitzeko.

Naharina son descendientes de los pueblos que habitaron Mesopotamia hace miles de años. Hacen de lo comunal su esencia y de la convivencia entre diferentes grupos étnicos su fortaleza. Pero ya no hay río, Turquía lo ha secado, haciendo imposible la vida para millones de personas. Sin embargo, kurdos, árabes y otros grupos étnicos siguen trabajando para construir comunas, casas de mujeres, cooperativas y un modelo de seguridad alternativo.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 18, larunbata, 17:00etan / Sábado 18 de octubre, 17:00



## SIKAT SUBAR

Diogo Pessoa de Andrade / Dokumentala
Portugal, Timor-Leste / 2024 / 95 min
V.O. Portugués / SUBT. Castellano

dpa.visuals@yahoo.com

Ekialdeko Timorren milaka urte dituen ohitura polemikoa eta horrek gizartean duen eragina dakarzkigu filmak. Independentziaren aldeko borroka, gatazka-konponketa, zeremoniak, ekonomia, enplegua, osasun publikoa eta genero-dinamikak erakusten ditu. Gatazka ondoko gizartearen konplexutasunei buruzko ikuspegi sakona eskaintzen du, munduko herrialderik gazteenetako batean.

Un viaje a una práctica milenaria y controvertida en Timor Oriental y su impacto en la sociedad, desde la lucha por la independencia y la resolución de conflictos hasta las prácticas ceremoniales, la economía, el empleo, la salud pública y las dinámicas de género. Una visión profunda de las complejidades de una sociedad posconflicto en uno de los países más jóvenes del mundo.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 17, ostirala, 17:00etan / Viernes 17 de octubre, 17:00



## UBUNTU

Josune Fdez. Beitia, Sandra Lorenzo / Dokumentala
España / 2025 / 16 min
V.O. Castellano / Sin subtítulos

laboticaudiovisual@gmail.com

Denboran zehar egindako ibilaldia, Teodoro Bondyaleren eskutik. 1971ko abenduaren 25ean Ekuatore Ginea utzi zuenetik, giza eskubideen eta munduko justiziaren alde ekiten jarraitu du, doan tokira doala jakinduria zabalduz.

Es un paseo por el tiempo con Teodoro Bondyale, que tras dejar Guinea Ecuatorial el 25 de diciembre de 1971, no cesa en su activismo por los Derechos Humanos y la justicia en el mundo, sembrando de sabiduría el camino a su paso.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19, igandea, 21:30ean / Domingo 19 de octubre, 21:30



## UTLÄNDSK

Alba Lozano / Fikzioa
España / 2024 / 21 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

kimuakfestivals@basqueaudiovisual.eus

Esti Oiartzunera itzuli da 6 urtez Suedian bizi ondoren. Bere buruari agindu zion ez zela berriro itzuliko; halere, ezegonkortasun ekonomikoa eta lan-prekarietatea direla eta, bueltatu egin behar izan da. Esti konturatuko da herrian ez dela ezer aldatu, eta ez dago egokitzeko prest.

Esti regresa a Oiartzun después de pasar 6 años viviendo en Suecia. Aunque se había prometido a sí misma no volver, la inestabilidad económica y la precariedad laboral la obligan a regresar. Se da cuenta de que el pueblo sigue inmutable, y Esti no está dispuesta a adaptarse.

**Errota Kultur Etxea. Matiena / Abadiño**
Urriak 10, ostirala, 19:00etan / Viernes 10 de octubre, 19:00

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 12, igandea, 20:00etan / Domingo 12 de octubre, 20:00

**Colegio Mayor Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia. EHU**
Urriak 13, astelehena, 19:15ean / Lunes 13 de octubre, 19:15

**Zine Antzokia. Zalla**
Urriak 16, osteguna, 19:00etan / Jueves 16 de octubre, 19:00

**Torresoroa Aretoa. Antzuola**
Urriak 17, ostirala, 18:30ean / Viernes 17 de octubre, 18:30

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 18, larunbata, 19:30ean / Sábado 18 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 20, astelehena, 21:30ean / Lunes 20 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## VACHAN

Kuldeep Kumar/ Fikzioa
Pakistán / 2023 / 17 min
V.O. Sindhi / SUBT. Castellano

rizwanalina6@gmail.com

Shrawan gazte hinduak erabaki du berak bakarrik ezagutzen duen leku batera eramatea aitaren gorpua. Familia haserre dago, baina Shrawanek bere erara omendu nahi du aita. Herriko mistiko transgenero baten laguntzarekin lortu du helburua. Erabakiak tirabirak sortu ditu familian; dena den, Shrawan lasai dago, bakean, aita bere erara ohoratu duelako.

Shrawan, un joven hindú, decide llevar el cadáver de su padre a un lugar que solo él conoce. Su familia está indignada, pero Shrawan sigue decidido a honrar la memoria de su padre a su manera. Con la ayuda de un místico transgénero local, consigue llevar a cabo su objetivo. Aunque su decisión provoca tensión en su familia, Shrawan encuentra la paz al saber que ha honrado a su padre a su manera.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 18, larunbata, 21:30ean / Sábado 18 de octubre, 21:30



## YOUR OWN BOSS

Álvaro Guzmán Bastida / Fikzioa
Estados Unidos, España / 2024 / 18 min
V.O. Inglés, castellano / SUBT. Castellano parcial

info@selectedfilms.com

Etxez etxeko janari-banatzaile bat, aita izan berria, oreka bila dabil familia-bizitzaren eta muturreko egoerara eramaten duen algoritmoaren artean.

Un repartidor de comida a domicilio y padre primerizo se esfuerza por encontrar un equilibrio entre su vida familiar y las exigencias de un algoritmo que lo lleva al límite.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22, asteazkena, 21:30ean / Miércoles 22 de octubre, 21:30



## ZODIAC

Hans Buyse / Fikzioa
Bélgica / 2024 / 15 min
V.O. Neerlandés / SUBT. Castellano

distribution.sayonarafilm@gmail.com

Berrogei urteko bi gizonen historia kontatzen du filmak. Arrantzara joan dira elkarrekin, eta zazpi errefuxiatu aurkitu dituzte itsasoan noraezean, arriskuan. Egoerak proban jarriko ditu haien arteko adiskidetasuna eta enpatia-gaitasuna.

Es la historia de dos hombres de cuarenta años, cuya amistad y capacidad de empatía se ponen a prueba cuando salen a pescar juntos y se encuentran con siete personas a la deriva, en apuros en medio del mar.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22, asteazkena, 21:30ean / Miércoles 22 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

## GAZTEEN KLAKETA SARIA

Beste urte batez, KCD GGKEk, EITBrekin batera, GAZTEEN KLAKETA saria emango du. Ekimen horren bidez, esker ona adierazi nahi zaie ikastetxeetako ikasleei zein ikastetxeei, telefono mugikorra gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzeagatik, eta 3 minutuko film laburra egiteagatik gizarte-gaien inguruan. Sarirako hautagai diren proiektuak "Ikasleen Klaketa - Sakeleko Telefonoaren Bidez Gauzaturiko Eraldaketa Sozialerako Komunikazio Tailerra" tailerrean jaio dira.

Ikaskuntza teknikoaz gain, tailerrak talde-lana bultzatzen du: ikasleak antolatu egiten dira, rolak hartzen dituzte eta erabaki kolektiboak hartzen dituzte. Elkarrizketaren eta ko-sorkuntzaren bidez, eragiten dieten edo kezkatzen dituzten gaiei buruz duten ikuspuntua partekatzen dute, eta film laburrean adierazteko eta entzunak izateko espazio bat aurkitzen dute.

Aurtengo edizioan, 352 ikaslek parte hartu dute (% 56 emakumeak), honako zentro hauetakoak: IES Artaza-Romo BHI, IES Mungia BHI, CIFP Ibarrekolanda LHII eta CIFP Iurreta LHII, IES Aixerrota BHI, IMFPB Bituritxa OLHUI, CIFP Barakaldo LHII, IES Saturnino de la Peña BHI, CIFP Elorrieta – Erreka Mari LHII, IES Eskurtze BHI.

Eduki sozialeko 80 film labur egin dira, eta beren zentroetan eskuragarri daude hainbat gai lantzeko. Eskusle moduan, lan horietako bost proiektatuko dira.

## PREMIO CLAQUETA JOVEN

Otro año más, KCD ONGD, junto a EITB, hará entrega del premio KLAKETA JOVEN. Con esta iniciativa se reconoce al alumnado de centros educativos por emplear el teléfono móvil como herramienta de transformación social y se distingue a los centros que han acompañado el proceso: la realización de un cortometraje de temática social de 3 minutos. Varios de los proyectos candidatos al premio nacen en el taller "Comunicación para el Desarrollo y la Transformación Social con teléfonos móviles – Ikasleen Klaketa".

Además del aprendizaje técnico, el taller impulsa el trabajo en equipo: el alumnado se organiza, asume roles y toma decisiones colectivas. A través del diálogo y la co-creación, comparten su punto de vista sobre las temáticas que les afectan o les preocupan, encontrando en el cortometraje un espacio para expresarse y ser escuchados.

En la edición de este año han participado 352 estudiantes (56% mujeres) de los siguientes centros: IES Artaza-Romo BHI, IES Mungia BHI, CIFP Ibarrekolanda LHII eta CIFP Iurreta LHII, IES Aixerrota BHI, IMFPB Bituritxa OLHUI, CIFP Barakaldo LHII, IES Saturnino de la Peña BHI, CIFP Elorrieta – Erreka Mari LHII, IES Eskurtze BHI.

Se han realizado 80 cortometrajes de contenido social, que quedan a disposición de sus centros para trabajar diversas temáticas. A modo de muestra, se proyectarán cinco de estos trabajos.

## LEHIAKETARAKO FILMAK: GAZTEEN KLAKETA
## PELÍCULAS A CONCURSO: CLAQUETA JOVEN



### BEHARREZKOA DA

Noa Alfaro, Aizeti Rotaetxe, Izaro Concepción / Fikzioa
Euskadi / 2025 / 3 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

administracion@kcd-ongd.org

Neska batek elikadura-arazo larriak ditu: jaten duen bakoitzean botaka egiten du, etengabe ‘kontrolatzen dut’ errepikatuz. Laburmetrai honek TCA duten pertsonen barne borroka islatzen du.

Una chica tiene graves problemas de alimentación: cada vez que come, vomita, repitiendo constantemente ‘controlo’. Este cortometraje refleja la lucha interna de las personas que sufren TCA.

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 17, ostirala, 19:30ean / Viernes 17 de octubre, 19:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## EL CONCIERTO DE MI VIDA

Hawa Keita, Daniel Palacio, Aritz Sanjurjo, Aner Sánchez, Asier Agudo, Desiree Taboada, Ainhize Mbomio, Peru Herran, Victoria Esekhaigbe, Naia Asín, Iraide Ruano, Virginia Frau / Fikzioa
Euskadi / 2025 / 4 min
V.O. Castellano / Sin subtítulos

administracion@kcd-ongd.org

Dibertsitate kognitiboa duten zenbait lagunek kontzertu batera joan nahi dute, baina familiek zalantza egiten dute, beldurrez. Azkenean, haiengan konfiantza jarri, eta autonomia frogatzeko aukera eman diete.

Un grupo de jóvenes con diversidad cognitiva quiere ir a un concierto, pero sus familias dudan por miedo. Finalmente, confían en el grupo y les permiten demostrar su autonomía.

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## MUGARIK GABEKO ARROPA

Nahia Flórez, Maider García, Ander Errasti, Arinette N'gole / Fikzioa
Euskadi / 2025 / 3 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

administracion@kcd-ongd.org

Neba etxean bakarrik geratzen denean, arrebaren arropa janzten hasten da. Arreba itzultzen denean harrapatzen du, baina azkenean elkarrekin kalera ateratzen dira arroparekin.

Cuando el hermano se queda solo en casa, empieza a vestirse con la ropa de su hermana. Cuando ella vuelve, lo pilla, pero al final salen juntos a la calle con la ropa.

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## UN BUEN RATO

Jorlan Sebastián Ordoñez, Sara Fernández Barajas, Miguel Ángel Ángulo Villada / Fikzioa
Euskadi / 2025 / 5 min
V.O. Castellano / Sin subtítulos

administracion@kcd-ongd.org

Egun batean, bi lagun zubi baten azpian elkartzen dira, lehen aldiz drogak probatzeko. Une horretatik aurrera, egunero geratzen dira, eta gero eta gehiago kontsumitzen dute, kontrolik gabe.

Dos jóvenes quedan un día bajo un puente y prueban drogas por primera vez. A partir de ese momento, empiezan a quedar todos los días, y el consumo va en aumento sin control.

**Muxikebarri - Getxoko Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroa**
**Muxikebarri - Centro de Arte, Cultura y Congresos de Getxo**
Urriak 17, ostirala, 19:00etan / Viernes 17 de octubre, 19:00

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## ZUZENEAN OFFLINE

Amaia Baseta, Nerea Gómez, Elixabete Amesti, Iraia Díaz, Eider Gómez
Euskadi / 2025 / 3 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

administracion@kcd-ongd.org

Teknologiaren mendekotasunak eguneroko bizitza eta harremanak nola baldintzatzen dituen erakusten du laburmetraiak.

El cortometraje muestra cómo la dependencia de la tecnología condiciona la vida cotidiana y las relaciones.

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

# EPAIMAHAIKIDEAK
JURADO

## GIZA ESKUBIDEAK
DERECHOS HUMANOS

## SILVIA GUTIÉRREZ VALLEJO



Jarduneko abokatua da 2003az geroztik, eta Bilbon du bulegoa. Eremu hauetan dihardu: zuzenbide penala, zibila (familiaren eta adingabeen arloa), fiskala, emakumeen gaineko indarkeria eta atzerritartasun-zuzenbidea. Egun, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Gobernu Batzordeko kide da, eta Atzerritartasun Zuzenbideko eta Espetxe Zuzenbideko azpibatzordeetako kidea Abokatuen Kontseilu Nagusian. Laneko esparrutik kanpo, atzerritartasun-zuzenbidearen eta giza eskubideen inguruko prestakuntza-saioak eman dizkie administrazio publikoetako eta erakundeetako kideei.

Abogada en ejercicio desde el año 2003, con despacho profesional en Bilbao. Su dedicación profesional se viene desarrollando en el derecho penal, civil (en el área de derecho de familia y menores) fiscal, violencia sobre la mujer y derecho de extranjería. En la actualidad es miembro de la Junta de Gobierno del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia. Vocal de la Subcomisión de Derecho de Extranjería del Consejo General de la Abogacía y Vocal de la Subcomisión de Derecho Penitenciario del Consejo General de la Abogacía. Fuera del marco estrictamente laboral ha realizado formación para miembros de Administraciones Públicas e Instituciones en derecho de extranjería y derechos humanos.

## JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA



Kazetaria, kultura, zinea eta euskararen arloan ari da hainbat proiektutan. Berria, Gara eta UK-Hiruka hedabideetan lan egiteaz gain, komunikazio arloan lan egiten du Bilboko Zinegoak jaialdian, Donostiako Zinemaldian, Durangoko Azokan eta abar. Ines Bermejo artistarekin batera, "Gu ere bagara" proiektuaren sustatzailea da, Getxoko LGTBIQ+ nagusien kontatu gabeko istorioak bildu dituena. Gernika-Palestina sareko kidea da, Palestinar herriari elkartasuna adierazi eta Israelen politika genozidak salatzea helburu duena.

Periodista, trabaja en diversos proyectos en el campo de la cultura, el cine y el euskera. Además de trabajar en medios como Berria, Gara y UK-Hiruka, trabaja en el ámbito de la comunicación en el Festival Zinegoak de Bilbao, en el Festival de Cine de San Sebastián, en la Feria de Durango, etc. Junto a la artista Inés Bermejo, es promotor del proyecto "Gu ere bagara", que recoge las historias no contadas de personas mayores LGTBIQ+ de Getxo. Es miembro de la red Gernika-Palestina, que tiene como objetivo mostrar su solidaridad con el pueblo palestino y denunciar las políticas genocidas de Israel.

## ISABEL LEÓN GRANELL

Euskadiko edukien eskualdeko zuzendaria Cadena SER irrati-katean. Hoy por Hoy Euskadi irratsaioko editorea. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean, eta Globalizazio eta Garapeneko Masterduna EHUn.



Directora regional de Contenidos de la Cadena SER en Euskadi. Editora de Hoy por Hoy Euskadi. Licenciada en Comunicación Audiovisual por la Universidad de Navarra y Máster en Globalización y Desarrollo por la EHU.

# EMAKUME BATEK BURUTUTAKO LANIK ONENA
# MEJOR OBRA REALIZADA POR UNA MUJER

## SOMAYA AMIRI

Haurtzaroan, errefuxiatua izan zen Iranen, eta 2008an itzuli zen Afganistanera, talibanak garaituak izan zirenean. Zuzenbide-ikasketak egin zituen, baina zinema eta antzerkia dira benetan gustuko dituen alorrak. Afganistango emakumeek beren bizitzan dituzten erronkei eta tabuei buruzko hiru dokumental egin zituen. Era berean, Heraten, atzerriko bulego batzuekin lankidetzan, antzerki-prestakuntzako ikastaroak antolatu ditu neskatilentzat, eta Afganistango zenbait jaialditan hartu du parte. 2016an, antzezlan konprometitu bat egin zuen: Islama iraintzea leporatuta harrika eta erreta hil zuten neskatila bati buruzko lana zen, 2015eko benetako gertaera batean oinarritua. Handik gutxira, lehen saria eskuratu zuen film laburren jaialdi batean, eta, aretotik irtetean, bi ezezagunek labanaz eraso zuten.



Refugiada en Irán durante su infancia, regresa a su país Afganistán cuando los talibanes son derrotados en 2008. Estudia derecho, pero lo que de verdad la apasiona es el cine y el teatro. Realizó tres documentales sobre los desafíos y los tabúes en la vida de las mujeres de Afganistán. También organiza cursos de formación teatral para niñas en cooperación con algunas oficinas extranjeras en Herat, y participa en algunos festivales nacionales afganos. En 2016 realiza una comprometida obra de teatro sobre una niña asesinada a pedradas y quemada, acusada de haber insultado al Islam, un hecho real sucedido en 2015. Seguidamente recibe el primer premio en un festival de cortos, y al salir de la sala dos desconocidos la atacan y la hieren con un cuchillo. A partir de ahí interrumpe su labor creativa hasta que se refugia en España de 2022. Ha escrito un libro sobre la situación de las mujeres afganas, aún no traducido, ni publicado.

## GRACE REQUEJO ARCE



Genero-arloko aholkularia. Psikologian lizentziaduna, genero-mainstreamingaren alorreko graduondoko ikasketak egin ditu, eta generoari eta feminismoari buruzko prestakuntza zabala jaso du. Profesional gisa laguntza eskaintzen die gizarte-erakundeei, enpresei eta administrazioei, bai eraldaketa feministarako bidean, bai gizarte-egoera zailean dauden emakumeen ahalduntzea eta enplegagarritasuna sustatzen. Gaur egun, Hirugarren Sektore Sozialean egiten du lan, EDE Fundazioan, hain zuzen.

Consultora de género. Licenciada en Psicología, Posgrado de Mainstreaming de género y con amplia formación en género y feminismo. Trayectoria profesional dedicada a acompañar a entidades sociales, empresas y administraciones en el camino hacia una transformación feminista, y también, a promover el empoderamiento y la empleabilidad de mujeres en situaciones sociales difíciles. Actualmente trabajando en el Tercer Sector Social, en EDE Fundazioa.

## ARKAITZ LÓPEZ SÁNCHEZ



2006tik hainbat gizarte-mugimendutan hartu du parte —ikasle-mugimendua, gazte-mugimendua, mugimendu internazionalista, greba-batzordeak, erabakitzeko eskubidearen aldeko plataformak eta abar—. Brigadista ere aritu da Kuban, Chiapasen eta Venezuelan. Ikerketa-proiektuak egin ditu zenbait gairen inguruan: herri-boterea, demokrazia komunala, Abya Yala lurraldeko (Venezuela, Chiapas...) gizarte-mugimenduak eta abar. Gaur egun garapenerako lankidetzako teknikaria da eLankidetza – Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Agentzian (2019tik), eta militantea zenbait mugimendutan. Gastronomia, itsasoa eta jai-giro herrikoia maite ditu.

Desde 2006 ha formado parte de varios movimientos sociales (movimiento estudiantil, movimiento juvenil, movimiento internacionalista, comités de huelga, plataformas por el derecho a decidir, etc.). Ha sido brigadista en varias ocasiones (Cuba, Chiapas, Venezuela). Ha realizado proyectos de investigación centrados en el poder popular, la democracia comunal, los movimientos sociales de Abya Yala (Venezuela, Chiapas, etc.), etc. Actualmente es Técnico de Cooperación al Desarrollo en eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad (desde el 2019) y militante en varios movimientos. Amante de la gastronomía, la mar y el ambiente festivo y popular.

## IRAUNKORTASUNA
## SOSTENIBILIDAD

### IDOIA ALDAMA ARANA



Lankidetza- eta aniztasun-teknikaria da Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesiorako Zuzendaritzan. Informazio Zientzietan lizentziaduna da, eta garapenerako lankidetzako eta gatazken kudeaketako graduondoko ikasketak egin ditu. Militante eta profesional gisa aritu da zenbait gizarte-erakundetan, betiere migrazioen, lankidetzaren, internazionalismoaren eta feminismoaren eremuetan. Elkartasuneko bidaietan eta brigadetan hartu du parte Palestinan, Sirian, Iraken, Saharan, Kuban eta Kolonbian, besteak beste. Zinema eta literatura maite ditu, batez ere kutsu soziala dutenak, salatzeko eta eraldatzeko tresna boteretsua direlakoan.

Técnica de cooperación y diversidad en la Dirección de Cohesión Social de la Diputación Foral de Bizkaia. Licenciada en Ciencias de la Información, ha realizado estudios de postgrado en cooperación para el desarrollo y resolución de conflictos. Con experiencia militante y profesional en distintas entidades sociales en el ámbito de las migraciones, cooperación, internacionalismo y feminismo. Ha participado en viajes y brigadas solidarias a Palestina, Siria, Irak, Sahara, Cuba o Colombia... Le apasiona el cine y la literatura, sobre todo de componente social como herramienta poderosa de denuncia y transformación.

### MARTA GARCÍA



Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da, eta kultura-kudeaketan masterduna. Gainera, graduondoko ikasketak egin ditu migrazioen, generoaren eta berdintasunerako politiken inguruan. 2008tik kulturaren eta zinemaren sektorean dihardu. Azken hamabost urteotan, programatzaile, kultura-kudeatzaile eta komunikatzaile egin du lan Uruguaiko, Argentinako, Mexikoko eta Espainiako estatuko proiektuetan. 2024an estreinatu zuen lehen film luzea, Mala reputación, Sol Infanterekin batera zuzendu zuena (SheffieldDocFest, DocsMX, DOCNYC, La Habana, CineBH). Gaur egun, (h)ari komunikazioko kooperatiba feministan eta LatAm cinema komunikabidean dihardu, eta kolaboratzaile da Irudi Berria proiektuan, non giza eskubideen inguruko trebakuntza eskaintzen duten ikus-entzunezko lanen bidez.

Licenciada en comunicación audiovisual, máster en gestión cultural con formación de postgrado en migraciones, género y políticas para la igualdad. Trabaja en el sector cultural y cinematográfico desde 2008. En los últimos quince años se ha desempeñado como programadora, gestora cultural y comunicadora en proyectos de Uruguay, Argentina, México y Estado español. En 2024 estrenó su primer largometraje, "Mala reputación", codirigido con Sol Infante (SheffieldDocFest, DocsMX, DOCNYC, La Habana, CineBH). En la actualidad trabaja en la cooperativa de comunicación feminista (h)ari, en el medio de información LatAm cinema y colabora con Irudi Berria, proyecto formativo en derechos humanos a través del audiovisual.

## DAVID MARTÍNEZ AMOEDO



Publizitatean eta Harreman Publikoetan lizentziaduna eta Zinema eta Telebistako goi-mailako teknikaria da. Zenbait telebista-katetan aritu da; besteak beste, Agencia Atlas, Información TV eta Alacantí TV kateetan. Azken aldian, enpresentzako komunikazioan dihardu, gizarte-erantzukizunaren eremuan, eta askotariko erakundeentzat egiten du lan —Berdeago euskal ingurumen-azoka eta abar—. Era berean, beste gizarte-proiektu batzuk lantzen ditu, EmakumeEkin elkartearentzat, adibidez. Marketin-agentzia batean egiten du lan, eta, aldi berean, hezkuntzan aritzeko ari da prestatzen.

Licenciado en Publicidad y RRPP y técnico superior en realización de Cine y televisión. Experiencia en varios canales de televisión como la Agencia Atlas, Información TV y Alacantí TV. En los últimos tiempos su trabajo se centra en comunicación para empresas en el ámbito de la responsabilidad social para entidades como Berdeago, Feria Vasca de Sostenibilidad y otros proyectos sociales para entidades como Emakume ekin. Actualmente trabaja en una agencia de marketing al mismo tiempo que se forma para introducirse en el ambiento educativo.

## GENERO EKITATEA
## EQUIDAD DE GÉNERO

## TERESA CAMPOS LÓPEZ



EHUko Hezkuntza Fakultateko irakaslea eta ikertzailea. Ondarearen Kontserbazioan lizentziaduna da, eta arkeologo eta ondare-hezitzaile jardun du, harik eta EHUko Hezkuntza Fakultateko plaza baten bidez akademiara esklusibotasunez lotu den arte. Hastapenetan, lotura estua izan zuen mundu islamikoarekin, bere ikerketa-esparruetako bat baitzen. Gaur egun, hainbat ildotan dihardu lanean, hala nola ondare-loturetan eta -sozializazioan, arkeologia feministan eta baterako hezkuntzan.

Profesora en la Facultad de Educación e investigadora de EHU. Licenciada en Conservación del Patrimonio, ha ejercido como arqueóloga y educadora patrimonial hasta que se vinculó de forma más exclusiva a academia a través de una plaza en la Facultad de Educación de EHU. En sus comienzos, tuvo una vinculación estrecha con el mundo islámico, ya que era uno de los ámbitos de investigación. En la actualidad, además, trabaja en líneas como los vínculos y la socialización patrimonial, la arqueología feminista y la coeducación.

## IZASKUN INUNCIAGA GARCÍA



Nutrizionista da prestakuntzaz, eta Osasun Publikoko Masterra eginda dago; alabaina, ekintzaile-bihotza du, eta justiziaren aldeko borrokan konprometituta dago. Duela urte batzuk boluntario-lanak egin zituen Bilbotik Perura erakundean, Alto Trujillo barrutiko Defensoría de la Mujer erakundean, hain zuzen. Gaur egun, hezkuntza-teknikaria da Adeco Elkartea GGKEan, eta gizarte-eraldaketa sustatzeko proiektuak eramaten ditu aurrera Bizkaian. Etengabe ikasten ari den feminista da, eta emakumeen, amen eta haurren eskubideen aldeko ekintzailea.

Nutricionista de formación con Máster en Salud Pública pero activista de corazón, comprometida en lo personal con la lucha por la justicia siendo hace años voluntaria en la organización Bilbotik Perura que trabaja con Perú, en concreto con la Defensoría de la Mujer de Alto Trujillo. Actualmente es Técnica de Educación en la ONGD Asociación Adeco llevando a cabo los proyectos de educación para la transformación social en Bizkaia. Feminsta y activista por los derechos de las mujeres, madres e infancia en continuo aprendizaje.

## DOMINIC WYATT NIMMO



Historia Garaikidean eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna Manchesterreko Unibertsitatean, eta garapenerako lankidetzako eta ekintza humanitarioko graduondoko ikasketak egina. Hogeita hamar urtetik gora daramatza garapenerako lankidetzaren eta elkartasunaren alorrarekin lotuta. Kooperante gisa aritu da Erdialdeko Amerikan, eta Euskal Herriko hainbat GGKE-etako egoitzetan egin du lan. Azken hogei urteotan, Afrikako, Latinoamerikako, Asiako eta Ekialde Hurbileko programak eta proiektuak ebaluatzen jardun du batez ere, eta GGKE-etan zein euskal erakundeetan prestakuntza eskaintzen hainbat gai xedetzat hartuta, hala nola generoa garapenaren arloan, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia, proiektuen kudeaketa eta ebaluazioa. Gaur egun Nazioarteko Harremanetako irakaslea da Deustuko Unibertsitatean.

Licenciado en Historia Contemporánea y Ciencias Políticas por la Universidad de Manchester y con posgrados en cooperación al desarrollo y acción humanitaria. Vinculado al mundo de la cooperación al desarrollo y la solidaridad desde hace más de treinta años, ha trabajado como cooperante en América Central, así como en sede de diferentes ONGD vascas. Durante los últimos veinte años se ha centrado en la evaluación de programas y proyectos en África, América Latina, Asia y Oriente Medio y en la formación para ONGD e instituciones vascas en temas como el género en el desarrollo, el enfoque basado en los derechos humanos, la gestión de proyectos y la evaluación. Actualmente es profesor de Relaciones Internacionales en la Universidad de Deusto.

## KULTURARTEKOTASUNA
## INTERCULTURALIDAD

### ESTHER OGUNLEYE



Kazetaritzan lizentziaduna EHUn, bai eta irrati-esataria, aurkezlea, sare sozialetako eduki-sortzailea (@saugga) eta DJa ere. «Esther Saugga» izenez da ezaguna, eta Kamanga Influencers Clubeko lehendakaria da 2023tik. San Frantzisko auzoan (Bilbon) eduki digitalak sortzeko gunea da klub hori. Horretarako tresnak eta baliabideak eskaintzen dituzte bertan, gazteen artean eten digitala desagerrarazteko xedearekin. Bideoak eta film laburrak egitea atsegin du, editatzea eta sorkuntza-prozesuaz gozatzea, eta bere ezagutza beste pertsona batzuekin partekatzea ere bai. Komunikazioa, ikus-entzunezkoen mundua eta artea eskutik doazela deritzo. Hori dela eta, gustuko du denetik egitea eta jakitea.

Licenciada en Periodismo por la EHU, locutora de radio, presentadora, creadora de contenido en redes sociales (@saugga) y DJ. Conocida como "Esther Saugga" es presidenta de "Kamanga Influencers Club" desde el año 2023. Un espacio de creación de contenidos digitales en el barrio de San Francisco (Bilbao). Cuya labor es acabar con la brecha digital en las y los jóvenes ofreciendo un espacio con herramientas y recursos para la creación de contenido digital. Le gusta hacer videos, cortos, editar y disfrutar del proceso de creación al igual que compartir su conocimiento con otras personas. Para ells, La comunicación, el mundo audiovisual y el arte van de la mano. Por eso, le gusta hacer y saber un poco de todo.

### SANTOS ARRIETA GALEY



